

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

KULTURA, HEZKUNTZA ETA KIROLA

Hezkuntza

2016-2017 ikasturtean Vitoria-Gasteizko Derrigorrezko Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan ari diren ikasleentzako laguntza psikopedagogikoak emateko deialdia eta berariazko oinarriak

2016ko uztailaren 29an egindako ohiko bilkuran onetsi zituen Tokiko Gobernu Batzarrak 2016-2017 ikasturtean Vitoria-Gasteizko Derrigorrezko Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan ari diren ikasleentzako laguntza psikopedagogikoak emateko deialdia eta berariazko oinarriak.

Azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 52.1. artikuluan xedatutakoaren ildotik, argitara ematen dira, denek izan dezaten horien berri.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko abuztuaren 29an

Kultura, Hezkuntza eta Kirol Saileko Administrazio Kudeaketako burua
NIEVES DÍAZ DE CORCUERA

2016-2017 ikasturtean Vitoria-Gasteizko Derrigorrezko Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan ari diren ikasleentzako laguntza psikopedagogikoak emateko berariazko oinarriak

1. Deialdiaren xedea

Ikasteko arazoak dituzten eta Vitoria-Gasteizko ikastetxeetan Derrigorrezko Lehen Hezkuntzan matrikulatuta dauden ikasleei 2016-2017 ikasturtean laguntza psikopedagogikoa ematea du helburu deialdiak.

2. Zein entitateri zuzenduta dauden eta zein diren ikasle onuradunak

2.1. Derrigorrezko Lehen Hezkuntza irakasten duten Vitoria-Gasteizko ikastetxeentzat dira laguntzak. Ikasteko arazoak dituzten ikasleei laguntza psikopedagogikoa emateko erabiliko dituzte; horretarako, Kultura, Hezkuntza eta Kirol Saileko Hezkuntza Zerbitzuak ikasle horiek onartu behar ditu aurkeztutako eskabideekin eta ikastetxeek aurkeztutako txostenekin bat etorriz.

2.2. Derrigorrezko Lehen Hezkuntza irakasten duten ikastetxeek eska ditzakete aipatutako laguntzak. Eskabideak aholkularien edota orientatzaileen bidez aurkeztuko dira, eta ikastetxeko zuzendaritzaren onespena beharko dute.

2.3. Derrigorrezko Lehen Hezkuntzan matrikulatutako dauden ikasleak dira laguntzen azken onuradunak, betiere ikasteko arazoak baldin badituzte eta Eusko Jaurlaritzaren beka jaso badute 2015-2016 ikasturtean Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren 2015eko irailaren 2ko Aginduaren esparruan (agindu horrek unibertsitateaz kanpoko ikasleak eskolatzeko ikasketa-beka eta –laguntzetarako 2015-2016 ikasturteko deialdia egin du, eta kanpoan utzi ditu testu-liburuak eta ikasmaterialak solidarioki eta ekitatiboki erabiltzeko programaren beka).

Premisa horietatik abiatuta, 2016-2017 ikasturtean laguntza jaso ahalko dituzten ikasleak ondokoak dira soilik:

– Deialdi honek sustatzen duen laguntza psikopedagogikoetan lehendabiziko aldiz parte hartzen duten Derrigorrezko Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailetako ikasleak.

– 2015-2016 ikasturteko II. eta III. hiruhilekoetarako laguntza psikopedagogikoen deialdiaren (ALHAO, 2015eko azaroaren 16koa) 5.1 baldintza baliatuta 2015-2016 ikasturtean laguntzak jaso dituzten Derrigorrezko Lehen Hezkuntzako ikasleak.

3. Diruz lagun daitezkeen jarduerak

3.1. Deialdi honen bidez, laguntza psikopedagogikorako diru-laguntza emango da, Vitoria-Gasteizen kokatzen diren eta ikastetxeek proposatzen dituzten zenbait kabinete psikopedagogikok gauzatuko dituzten zenbait saioren bitartez. Deialdiaren ebazpenak finkatuko du saio kopurua, eta onartutako eskaeren arabera izango da.

3.2. Matrikulatutako ikasturtean antzeman diren ikasteko arazoak dituzten ikasleen arreta psikopedagogikorako izango dira aipatutako saioak. Landu beharreko arazoek ondokoekin izango dute lotura: motibazio eza; aditasun eza; autoestimua txikia; arauak ez onartzea; arrazoiketa logikoarekin, espazialarekin eta hitzezko ulermenarekin zein idazketarekin eta irakurketarekin lotutako oinarritzko gaitasunak garatzeko zailtasunak, ikasturte bat edo biko epean lan daitezkeen beste arazo psikopedagogiko batzuk.

3.3. Banakako saioak izango dira eta halabeharrez kabinete psikopedagogikoen egoitzan egingo dira.

Dena dela, ikastetxeek, interesen eta ikasle onuradunari arreta egiteko lanen bateragarritasunaren arabera, ikasleen taldeko arreta sustatzeko proposamenak aurkez ditzake (gehien jota 3 ikasle), baina Hezkuntza Zerbitzuaren onarpena beharko du.

Ikastetxeek kabinete psikopedagogikoei jakinaraziko diete zenbat saio finkatuta dituzten, banakakoak diren edo, halakorik balego, taldekoak diren, eta baita deialdi honen onuradun ez diren hurrek ezin dutela saioetan parte hartu adierazi ere.

3.4. Saioak ordubetekoak izango dira, eta 2016ko urritik 2017ko ekainera bitartean gauzatuko dira.

Hala eta guztiz ere, 2017ko urtarriletik ekainera bitarteko saioak egiteko eta horien diru-laguntza emateko, kreditu egoki eta nahikoa egon beharko du 2017ko udal aurrekontuan.

3.5. Egiten diren saioetan, guztietan edo horietako batzuetan, kabinete psikopedagogikoei finkatutako ordubetetik tarte bat utziko dute familiekin edo legezko tutoreekin komunikatzeko edo orientazioa eskaintzeko.

4. Parte hartzeko baldintzak

4.1. Ikasle bakoitzak gehien jota bi ikasturtez jaso dezake deialdi honen xede den arreta psikopedagogikoa.

Deialdi honen esparruan, Derrigorrezko Lehen Hezkuntzako 1. edo 2. mailako ikasleek lehendabiziko aldiz jasotzen badute laguntza, berriz ere jaso ahalko dute 2017-2018 ikasturtean, horretako aurrekontu-zuzkidurarik badago eta laguntzen deialdiaren xedea deialdi honetakoa bada edo honen antzekoa baldin bada.

Bestalde, deialdi honen onuradun diren ikasleak, 2015-2016 ikasturterako deialdian ere onuradun ere izan badira, ezingo dira 2017-2018ko ikasturterako deialdiaren onuradun izan deialdiaren xedea deialdi honetakoa bada edo honen antzekoa baldin bada.

4.2. Ikasle onuradunek laguntza psikopedagogikoa jaso ahal izateko, ikastetxeek, aldezturik, familiaren edo legezko tutoreen idatzizko baimena izan behar du, aipatutako saioetara joateko baimena alegia, baita prozesuarekiko konpromisoa eta inplikazioa ere. Kultura, Hezkuntza eta Kirol Sailak, Hezkuntza Zerbitzuak, ikastetxeei aipatutako baimenak eska ahal dizkio edozein unetan.

4.3. Ikastetxeetako aholkulariek edota orientatzaileek egingo dute laguntza jasotzen duten ikasleen garapenaren jarraipena; horretarako, harreman egokia izango dute kabinete psikopedagogikoekin eta ikasle onuradunen familiekin edo legezko tutoreekin.

Bestalde, Udalaren Hezkuntza Zerbitzuak, egokia jotzen duenean eta bere jarraipena egi-tearren, informazioa eska diezaizkete ikastetxeetako aholkulari edota orientatzaileei zein kabi-nete psikopedagogikoei.

4.4. Edozein arrazoi dela-eta, ikasle batek arreta psikopedagogikoko saioak uzten baldin baditu, epe batez edo betiko, ikastetxeak horren berri eman beharko dio Kultura, Hezkuntza eta Kirol Sailari, Hezkuntza Zerbitzuari, VI. eranskinaren bitartez.

4.5. Ikaslea bi aldiz saioetara huts egiten badio justifikatu gabe, laguntza eten egingo da.

4.6. Deialdiaren esparruan nahastuta dauden kabinete psikologikoen saioetako fakturak or-dainduko dituzte ikastetxeek, diru-laguntza haiek jasotzen baitute. Horretarako, Vitoria-Gasteizko Udalak emandako laguntzaren zenbatekoa ikastetxearen banku-kontuan sartuko da.

Banakako saioen prezioa, ikastetxeek kabinete psikopedagogikoei ordaindu beharrekoa, 26,00 eurokoa izango da, zergak barne. Taldeko saioei dagokienez, 40,00 euroko prezioa izango du saio bakoitzak, zergak barnean sartuta. Kasu batean zein bestean, ikasleen arreta eta fami-liekin edo legezko tutoreekin komunikatzeko eta orientatzeko utzitako denbora sartzen dira aipatutako prezioan.

4.7. Sexu Delitugileen Erregistro Nagusiak emandako ziurtagiri negatiboak eskatuko dizkiete ikastetxeek kabinete psikopedagogikoei, hots, ikasle onuradunekin lan egiten duten kabinete psikopedagogikoko pertsona guztien inguruko ziurtagiria. Espainiako nazionalitatea ez dutenek, aipatutako ziurtagiri negatiboaz gain, euren herrialdeetako ziurtagiria ere izan beharko dute. Hezkuntza Zerbitzuak, ikastetxeei aipatutako baimenak eska ahal dizkio edozein unetan.

Adingabeen Babes Juridikoari buruzko eta Kode Zibila eta Prozedura Zibilaren Legea aldatzeari buruzko 1/1996 Legeak, urtarrilaren 15ekoak, —haur eta nerabeak babesteko sis-tema aldatzeari buruzko uztailaren 28ko 26/2015 Legearen eta Boluntarioei buruzko urriaren 14ko 45/2015 Legearen bidez aldatu da aipatutako Legea— xedatu egin du adingabeekin maiz harremanetan dauden lan, lanbide edo jardueretan aritzeko ondoko baldintza bete behar dela ezinbestean: sexu-askatasun eta —osotasunaren aurkako delitu batengatik epai irmo baten bidez sekula kondenatuta ez izana.

5. Aurrekontu-zuzkidura

Kultura, Hezkuntza eta Kirol Sailak (Hezkuntza Zerbitzua) 157.352,00 euroko aurrekontu-zuz-kidura du, 2319 02 3261 48004 partidaren bitartez ordaintzekoa, eta ondoko moduan banatuta dago:

— 46.826,00 euro 2015ko udalaren aurrekontuarekin ordaindu beharrekoa, 2016ko urritik abendura arte egiten diren laguntza psikopedagogikoetarako.

— 110.526,00 euro 2017ko udal aurrekontuarekin ordaindu beharrekoa, 2017ko urtarriletik ekainera arte egiten diren laguntza psikopedagogikoetarako. Dena dela, 2017ko udal aurre-kontuan kreditu egoki eta nahikoa egon behar du horretarako aipatutako laguntzak eman ahal izateko.

6. Eskabideak aurkeztea

Deialdian parte hartu nahi dituzten ikastetxeek, eskabidea eta dokumentazioa aurkeztu beharko dute ondoko baldintzen arabera:

6.1. Eskabidea aurkezteko epea: 15 egun naturaleko epean, oinarri hauen deialdiaren la-burpena ALHAOn argitaratzen den biharamunetik. Azken eguna larunbata edo jai-egun bada, hurrengo lan-eguna izango da.

6.2. Non aurkeztu: Dokumentazio guztia Udalaren Hezkuntza Zerbitzuan (Frai Zakarias Martínez kalea, 3. zk.) edo, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 38.4. artikuluan zehazten den moduan aurkeztu beharko da.

6.3. Aurkeztu beharreko agiriak:

– Diru-laguntza eskabidea (I. eranskina).

– Ikasle bakoitzari buruzko txosten teknikoa, ikastetxeko aholkulariak edo orientatzaileak egindakoa. Txostena eskariaren oinarri den beharrari buruzkoa izango da, eta ikastetxeko zuzendaritzak ontzat eman beharko du (II. eranskina) ikastetxeak taldeko arreta proposatzen badu, eranskin horretan adierazi beharko du.

– Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren 2015eko irailaren 2ko Aginduaren esparruan Eusko Jaurlaritzak emandako beka ebazpenaren kopia. Agindu horrek unibertsitateaz kanpoko ikasleak eskolatzeko ikasketa-beka eta –laguntzetarako 2015-2016 ikasturteko deialdia egin du, eta kanpoan utzi ditu testu-liburuak eta ikasmaterialak solidarioki eta ekitatiboki erabiltzeko programaren beka.

– Deialdiaren barruan laguntza jasoko duten ikasleak Vitoria-Gasteizko zein kabinete psikopedagogikora bidali nahi dituen adieraziko du ikastetxeak (II. eranskina).

– 2015-2016 ikasturteko bigarren eta hirugarren hiru hilekoetarako laguntza psikopedagogikoen deialdiaren barruan aurreko ikasturtean laguntza jaso zuten ikasleen kasuan, nahikoa izango da laguntza-eskabidea (I. eranskina) eta Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren 2015eko irailaren 2ko Aginduaren esparruan Eusko Jaurlaritzak emandako beka ebazpenaren kopia aurkeztea. Agindu horrek unibertsitateaz kanpoko ikasleak eskolatzeko ikasketa-beka eta –laguntzetarako 2015-2016 ikasturteko deialdia egin du, eta kanpoan utzi ditu testu-liburuak eta ikasmaterialak solidarioki eta ekitatiboki erabiltzeko programaren beka.

Aurkezten diren eskabideak hobeto ebaztearren, Vitoria-Gasteizko Udalak egokitzen jotzen dituen beste agiri batzuk eska ditzake.

7. Eskabideetako okerrak zuzentzea

Diru-laguntzarako eskabideak ez badaude osorik beteta edo oinarrietan exijitutako agiri guztiak aurkezten ez badira, ikastetxe interesdunari eskatuko zaio 10 eguneko epean zuzentzeko, eta ohartaraziko zaio halakorik egiten ez badu eskabideari uko egiten diola ulertuko dela; aldeztu aurretik ebazpena egin beharko da, Herri Administrazioaren Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 71. artikulua xedatutakoarekin bat etorritik.

8. Informazioa eta aholkularitza

Udaleko Hezkuntza Zerbitzuak argibideak eta aholkularitza eskainiko dizkie deialdi honen baitan diru-laguntza eskatu nahi duten ikastetxeei. Kontsultak 945 16 15 08 telefono-zenbakira deituta edo ondoko helbide elektronikoan egin daitezke: fjdemiguel@vitoria-gasteiz.org.

9. Lankidetzak-konpromisoa

Diru-laguntza emanez gero, ikastetxe eskatzaileak gain hartuko du Hezkuntza Zerbitzuari laguntzeko konpromisoa diru-laguntza emateko akordioetan zehaztutakoaren arabera.

10. Eskabideak baloratzea

Ondoko irizpideak aintzat hartuta baloratuko dira eskabideak:

– Proposatutako ikasleek baldintzak betetzea.

– Ikastetxeak Hezkuntza Zerbitzuari baloratzeko proposatzen dion ikaslearen arazoa.

– 2015-2016 ikasturteko II. eta III. hiru hilekoetarako laguntza psikopedagogikoen deialdiaren onuradun izan ziren ikasleak programan egondako denbora eta lortutako emaitzak.

– Hezkuntza Zerbitzuari baloratzeko proposatzen zaizkion taldeko saioen interesa edo ego-kitasuna.

Beharrezkoa balitz, ondokoek izango dute lehentasuna laguntzak emateko orduan:

– 2015-2016 ikasturteko II. eta III. hiru hilekoetarako laguntza psikopedagogikoen deialdian onuradun izan diren ikasleak (ALHAO, 2015eko azaroaren 16koa).

– Eta, ondoren, Derrigorrezko Lehen Hezkuntzako 1. mailan matrikulatu diren deialdi honen esparruan proposatu diren ikasleak.

11. Diru-laguntzak emateko prozedura

Deialdi honen xede diren diru-laguntzak, norgehiagoka araubidepean emango dira, exijitzen diren betebeharrekin bat etorritz.

Eskabideak jasota, baldintzak egiaztatuta eta eskabideak izapidetzeko onartuta, txosten teknikoa eta ebazpen-proposamena egingo da, oinarrietan finkatutako baldintzen arabera.

Horretarako, eskabideak eta emateko proposamenak baloratzeko gai izango den talde-organoa osatuko da. Ondokoek osatuko dute: Kultura, Hezkuntza eta Kirol Saileko zinegotzi ordezkaria, Hezkuntza zerbitzuburua, Hezkuntza Programetako Ataleko arduraduna eta Hezkuntza Zerbitzuko bi teknikari. Aipatutako organoak diru-laguntza emateko proposamena bidaliko dio ebazteko eskumena duen organoari.

Halaber, organo instrukzio-egilea Kultura, Hezkuntza eta Kirol Saileko Administrazio eta Kudeaketa zerbitzuburua izango da, eta datuak zehaztu, ezagutu eta egiaztatze beharrezkoak diren ekintza guztiak gauzatu dituzte ofizioz, laguntzak emateko ebazpen-proposamena horretan oinarrituko baita.

Eskumenak eskuordetzeko Dekretuarekin bat etorritz, Tokiko Gobernu Batzarrak du deialdia onesteko eta ebazteko eskumena.

12. Ebazpen-eta jakinarazpen-epea

Prozedura bi hilabeteko epean ebatziko da gehien jota, eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunetik. Epe hori amaituta berezko ebazpenik eman ez bada, eskabidea ezetsizat joko da.

Ebazpenarekin bide administratiboa amaituko da, eta horren aurka zer errekurtsio jar daitezkeen zehaztuko du ebazpenak.

Ebazpena posta arruntez bidaliko da ikastetxe eskatzaileak eskabideak jakinarazpenetarako emandako helbidera (hartu izanaren agiriarekin), betiere Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen, azaroaren 26koaren, 59. artikulua xedatutakoarekin bat etorritz.

13. Diru-laguntzen bateragarritasuna

Ematen den laguntza bateragarri izango da helburu berarekin beste Administrazio edo entitate publiko edo pribatu batzuek ematen dituztenekin, jardueraren gain-finantzaketarik gertatzen ez bada. Gain-finantzaketa gertatzen bada, diru-laguntzaren zenbatekoa murriztuko da dagokion gehiegizko mugaraino.

Deialdian aurkeztu den jarduera garatzeko beste Administrazio edo entitate baten diru-laguntza eskatu eta, kasua balitz, lortu duten ikastetxeek, aurkeztutako dokumentazioan jaso beharko dute zein Administrazio edo entiteri eskatu dioten diru-laguntza eta, kasua balitz, zenbat eman dioten.

14. Ikastetxeen betebeharrak

Ondoko betebeharrak bete beharko dituzte deialdian araututako laguntzak jasotzen dituzten ikastetxeek:

– Diru-laguntzaren xedea den jarduera gauzatea.

– Vitoria-Gasteizko Udalaren Kontu-hartzailletza Nagusiari dagozkion ikuskatzeko eta finantza-kontrolerako lanak onartzea eta horretan laguntzea.

– Jakinaraztea beste diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuk lortu dituztela jarduera hori finantzatzeko.

– Diru-laguntza emateko orduan kontuan izandako edozein zirkunstantzia objektibo nahiz subjektibo aldatuz gero, Vitoria-Gasteizko Udalari jakinaraztea.

– Jasotako funtsak zertarako baliatu diren justifikatzen duten agiriak gordetzea, agiri elektronikoak barne, kontrol eta egiaztapen jarduerak egitea gerta litekeen bitartean.

– Programa finantzaketaren izaera publikoari buruz egokia den publizitatea egitea, eta Vitoria-Gasteizko Udalaren logotipoa jartzea.

– Hezkuntza Zerbitzuari jakinaraztea ikasle onuradunak zein kabinete psikopedagogikoetara doazen, baita horren inguruan egiten diren aldaketa guztiak ere.

15. Diru-laguntzak ordaintzea eta justifikatzea

15.1. Diru-laguntza ordaintzea.

Bi zatitan ordainduko da diru-laguntza:

1. Lehenengo ordainketa 2016ko abenduaren 31 baino lehen egingo da, Udalaren 2016ko aurrekontuaren bidez, eta 2016ko urritik abendura egiten dien arreta psikopedagogikorako laguntzari dagokio.

2. Bigarren ordainketa 2017ko martxoaren 31 baino lehen egingo da, eta 2017ko urtarritik ekainera egiten dien arreta psikopedagogikorako laguntzari dagokio. Diru-laguntza emango da xede horretarako Udalaren 2017rako aurrekontuan kreditu egoki eta nahikoa baldin badago.

15.2. Diru-laguntza justifikatzea:

Diru-laguntza justifikatzeko, jatorrizko fakturak aurkeztu beharko dira.

Diru-laguntza jasotzen duten ikastetxe onuradunek diruz lagundutako jardueraren ehuneko 100 justifikatu beharko dute, ez Vitoria-Gasteizko Udalak emandakoa bakarrik, hala xedatzen baitu diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 30. artikulua, eta Udalari egozten zaien gastuen kostua zehaztu beharko da.

2016ko urria-abendua eperako ematen den diru-laguntza eta, kasua balitz, 2017ko urtarritik ekainera eperako ematen den diru-laguntza batera justifikatuko dira 2017ko ekainaren 30a baino lehen.

Ikastetxe onuradunek jasotako kopurua justifikatu beharko dute ondoko agiriak aurkeztuz:

a) Egindako programa eta ikasleen bilakaera azaltzeko txostena (III. eranskina). Txostenak ondoko gidoia izango du:

– Ikaslearen datuak eta laguntza justifikatzen duen arazoa.

– Asistentzia-datuak: Zenbat saio egin diren, zenbatera ez den joan eta justifikazioa.

– Ikaslearen bilakaera. Eskolako emaitzak edota jarrera hobea izatea, eta saioetako joateko interesa.

– Emandako laguntzaren balorazioa. Ikaslearen aprobetxamendua, emandako laguntzari laguntzen dioten edo laguntzan eragina duten egoerak etab.

– Familiekin edo legezko tutoreekin egindako lana baloratzea, bai ikastetxeak egindakoa bai kabinete psikopedagogikoek egindakoa.

b) Jasotako diru-laguntza justifikatzen dituzten jatorrizko fakturak, laguntzen duten kabinete psikopedagogikoez egindakoak. Fakturretan saioek zenbat balio izan duten, zenbat egin diren eta noiz egin diren jasoko da. Ez da justifikaziorik onartuko IV. eranskinean jasotako ereduaren ziurtagiria aurkezten ez bada.

c) Ikastetxeak jasotako diru-laguntzaren ziurtagiria (V. eranskina).

Hezkuntza Zerbitzuak diruz lagundutako jarduera guztiak balioetsiko ditu, lortutako emaitzak, erabilgarritasuna, hedapena eta parte hartzea aztertze aldera.

16. Itzultzea

Hurrengo baldintzaren bat gertatzen denean, jaso den dirua itzuli beharko da eta, gainera, berandutze-interesak ere exijituko dira laguntza ordaindu den unetik:

- Diruz lagundutako jarduera burutu ez bada.
- Laguntza zertarako eskatu den, hartarako erabiltzen ez bada.
- Jasotako laguntza zertan erabili den ezarritako epean eta eran justifikatu ez bada edo nahiko justifikatu ez bada.
- Diru-laguntza jaso bada horretarako behar diren baldintzak bete gabe.
- Diru-laguntzen Udal Ordenantzak aurreikusten dituen kontrol-jarduerak galarazi, oztopatu edo halakoei uko egin bada.
- Aurkeztutako eskabidean edo agirietan datu faltsuak eman badira, edo ematea galaraziko luketen beste batzuk ezkutatu badira.
- Gain-finantzazioa bada, hau da, emandako laguntzaren zenbatekoa, bera bakarrik nahiz beste laguntzekin batera, diruz lagundutako jardueraren benetako kostutik gorakoa bada. Kasu horretan, gauzatutako jardueraren kostutik gora lortutakoa itzuliko da.
- Oinarri hauetan jasotako betebeharren bat ez betetzea edo diru-laguntzen Udal Ordenantzaren 20. artikulua xedatutakoa egoeraren batean egotea.

Itzultzeko prozedura diru-laguntzen udal Ordenantzak araututakoaren arabera izango da, eta Kutxabankeko ES03 2095 0611 03 1090952416 Hezkuntza Zerbitzuaren kontuaren bidez egingo da; ondoren Hezkuntza Zerbitzuan aurkeztu beharko da diru-sarreraren egiaztagiria.

Aurreko egoeraren bat gertatzen bada, lehenengoa salbu, hurrengo deialdian ez da aurkeztutako proiekturik onartuko. Horretaz gain, ikastetxeari zigorra jar dakioko.

17. Arau-hausteak eta zigorrak

Arau-hausteen eta zigorren araubidea Vitoria-Gasteizko Udalaren diru-laguntzaren udal Ordenantzak xedatutakora egokitu da.

18. Aplikatu daitekeen legeria

Oinarrien Plegu honetan aurreikusten ez diren alderdiei dagokienez, Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa —Herri Administrazioek emandakoa diru-laguntzen kasuan aplikagarria delako—, eta Diru-laguntzen udal Ordenantza aplikatuko dira.

Oinarriak interpretatzearen inguruan zalantzarik balego, Tokiko Gobernu Batzarrak ebatziko du.

Oinarri honetan jasotako ordenantzak Vitoria-Gasteizko Udalaren web-orrian kontsulta daitezke: www.vitoria-gasteiz.org.

19. Errekurtsoak

Deialdi honen eta berriazko oinarrien aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da zuzenean Vitoria-Gasteizko administrazio-auzietarako Epaitegietan, bi hilabeteko

epean ALHAOn argitaratzen den biharamunetik, edo, aukeran, berraztertze-errekurtsoa deialdia onetsi duen organoari berari zuzenduta, hilabeteko epean, AHLAOn argitaratzen den biharamunetik; horren berariazko ebazpenaren eta ustezko ebazpenaren aurka, berriz, bi hilabeteko epean aurkeztu ahal izango da Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa errekurtsoa ezezten duen ebazpenaren berri jasotzen den egunaren biharamunetik, edo sei hilabeteko epean ustezko ebazpen hori gertatzen den egunaren biharamunetik.



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

www.vitoria-gasteiz.org

I. ERANSKINA

LAGUNTZA PSIKOPEDAGOGIKOETARAKO DEIALDIA – 2016-2017 IKASTURTEA

ESKABIDEA

_____ jaun-andreak,

_____ NAN zenbakia duenak, _____

_____ Ikastetxeko zuzendaria denez,

(Helbidea: _____)

Udalerria: _____ IFK/IFZ: _____)

ADIERAZTEN DU

Vitoria-Gasteizko Derrigorrezko Lehen Hezkuntza Ikastetxeetako ikasleentzako 2016-17 ikasturterako Laguntza psikopedagogikoak, Kultura, Hezkuntza eta Kirol Saileko Hezkuntza Zerbitzuarenak, ematea arautzen duen Deialdia eta berariazko oinarriekin bat etorritz,

ESKATZEN DU

Laguntza eman diezaioten, ikaslearentzat Deialdiak finkatutako helburuak lortzen laguntzeko.

Vitoria-Gasteizen, 2016ko _____-ren __-(e)an.

Izen-abizenak

(Sinadura eta jatorrizko zigiluak)

Ematen ari zaren datu pertsonalak "Diru-laguntzak" fitxategian sartuko direla jakinarazten dizu Gasteizko Udalak, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoa, abenduaren 13koa, betetze aldera. Fitxategi horren titularrak udala bera da, eta diru-laguntzak kudeatzea du helburu. Datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko, bertan behera uzteko edo datuei aurka egiteko eskubidea egikari dezakezu; horretarako, Vitoria-Gasteizko Udalaren Informazio Orokorreko Bulegora jo behar duzula, ondoko helbidera, hain zuzen: Teodoro Dublang kalea, 25. zenbakia, behea, 01008 Vitoria-Gasteiz, baita Herriarrentzako Arreta Bulego guztietara ere.



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

www.vitoria-gasteiz.org

II. ERANSKINA

LAGUNTZA PSIKOPEDAGOGIKOETARAKO DEIALDIA – 2016-2017 IKASTURTEA

JUSTIFIKATZEKO TXOSTEN TEKNIKOA

- Ikaslearen izen-abizenak: _____
- Ikastetxea eta hezkuntza maila: _____
- Eusko Jaurlaritzaren beka du? BAI EZ (kopia erantsi)
- Ikastetxean edo kanpoan laguntzaren bat du? BAI EZ Zehaztu:

- Eskabidea justifikatzen duen arazoaren azalpena: _____

Taldeko arreta proposatzen bada, adierazi zein ikaslerekin batera egingo duen saio, eta zergatik den egokia taldeko arreta egitea:

Ikaslearen arretarako proposatzen den kabinete psikopedagogikoa:

Ikastetxeko zuzendari jaun-andreak ontzat emana

Izen-abizenak
(Sinadura eta jatorrizko zigiluak)

Ematen ari zaren datu pertsonalak "Diru-laguntzak" fitxategian sartuko direla jakinarazten dizu Gasteizko Udalak, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoa, abenduaren 13koa, betetze aldera. Fitxategi horren titularrak udala bera da, eta diru-laguntzak kudeatzea du helburu. Datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko, bertan behera uzteko edo datuei aurka egiteko eskubidea egikari dezakezu; horretarako, Vitoria-Gasteizko Udalaren Informazio Orokorreko Bulegora jo behar duzula, ondoko helbidera, hain zuzen: Teodoro Dublang kalea, 25. zenbakia, behe, 01008 Vitoria-Gasteiz, baita Herriarrentzako Arreta Bulego guztietara ere.



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

www.vitoria-gasteiz.org

III. ERANSKINA

LAGUNTZA PSIKOPEDAGOGIKOETARAKO DEIALDIA – 2016-2017 IKASTURTEA

EGINDAKO PROGRAMARI BURUZKO TXOSTENA-MEMORIA

- Ikaslearen izen-abizenak: _____

- Ikastetxea eta hezkuntza maila: _____

- Kabinete psikopedagogikoa: _____

- Profesionalaren izena: _____

- Laguntzaren xede den arazoari buruzko azalpen sinoptikoa: _____

- Asistentzia-datuak: _____

- Ikaslearen bilakaera: _____



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

www.vitoria-gasteiz.org

- Emandako laguntzaren balorazioa. _____

- Familiaren edo legez tutoreen parte-hartzeari eta inplikazioari buruzko balorazioa: _____

Ematen ari zaren datu pertsonalak "Diru-laguntzak" fitxategian sartuko direla jakinarazten dizu Gasteizko Udalak, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoa, abenduaren 13koa, betetze aldera. Fitxategi horren titularra udala bera da, eta diru-laguntzak kudeatzea du helburu. Datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko, bertan behera uzteko edo datuei aurka egiteko eskubidea egikari dezakezu; horretarako, Vitoria-Gasteizko Udalaren Informazio Orokorreko Bulegora jo behar duzula, ondoko helbidera, hain zuzen: Teodoro Dublang kalea, 25. zenbakia, behea, 01008 Vitoria-Gasteiz, baita Herritarrentzako Arreta Bulego guztietara ere.



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

www.vitoria-gasteiz.org

IV. ERANSKINA

LAGUNTZA PSIKOPEDAGOGIKOETARAKO DEIALDIA – 2016-2017 IKASTURTEA

JATORRIZKO FAKTUREN ZIURTAGIRIAK

(Diru-laguntza justifikatuko duten fakturen jatorrizkoen aurkezpenaren aurrealdean jaso behar da idazki hau)

D./Dña. _____

en representación del Centro _____

con NIF _____

ZIURTATZEN DU:

Honekin batera doazen gastu-fakturak sortu egin direla Kultura, Hezkuntza eta Kirol Sailak (Hezkuntza Zerbitzua) 2016-17 ikasturterako egin duen Laguntza Psikopedagogikoen Deialdian aurreikusitako xedearen ondorioz.

Eta egiaztagiri moduan, Diru-laguntzen eta Laguntzen Udal Ordenantza betez.

Vitoria-Gasteizen, 2016ko _____-ren __-(e)an.

Izen-abizenak

(Sinadura eta jatorrizko zigiluak)

Ematen ari zaren datu pertsonalak "Diru-laguntzak" fitxategian sartuko direla jakinarazten dizu Gasteizko Udalak, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoa, abenduaren 13koa, betetze aldera. Fitxategi horren titularra udala bera da, eta diru-laguntzak kudeatzea du helburu. Datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko, bertan behera uzteko edo datuei aurka egiteko eskubidea egikari dezakezu; horretarako, Vitoria-Gasteizko Udalaren Informazio Orokorreko Bulegora jo behar duzula, ondoko helbidera, hain zuzen: Teodoro Dublang kalea, 25. zenbakia, behea, 01008 Vitoria-Gasteiz, baita Herriarrentzako Arreta Bulego guztietara ere.



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

www.vitoria-gasteiz.org

V. ERANSKINA

LAGUNTZA PSIKOPEDAGOGIKOETARAKO DEIALDIA – 2016-2017 IKASTURTEA

JASOTAKO DIRU-LAGUNTZAREN ZIURTAGIRIA

_____ jaun-andreak,

_____ Ikastetxearen izenean,

IFZ: _____

ZIURTATZEN DU:

Ikastetxeak _____ euro jaso duela Kultura Hezkuntza eta Kirol Saitetik (Hezkuntza Zerbitzua) Laguntza Psikopedagogikoen Deialdiaren esparruan onartu diren ikasleei arreta egiteko gastuen diru-laguntza gisa (2016-17 ikasturtea).

Eta egiaztagiri moduan, Diru-laguntzen eta Laguntzen Udal Ordenantza betez.

Vitoria-Gasteizen, 2016ko _____-ren __-(e)an.

Izen-abizenak
(Sinadura eta jatorrizko zigiluak)

Ematen ari zaren datu pertsonalak "Diru-laguntzak" fitxategian sartuko direla jakinarazten dizu Gasteizko Udalak, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoa, abenduaren 13koa, betetze aldera. Fitxategi horren titularrak udala bera da, eta diru-laguntzak kudeatzea du helburu. Datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko, bertan behera uzteko edo datuei aurka egiteko eskubidea egikari dezakezu; horretarako, Vitoria-Gasteizko Udalaren Informazio Orokorreko Bulegora jo behar duzula, ondoko helbidera, hain zuzen: Teodoro Dublang kalea, 25. zenbakia, behe, 01008 Vitoria-Gasteiz, baita Herritarrentzako Arreta Bulego guztietara ere.



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

www.vitoria-gasteiz.org

VI. ERANSKINA

LAGUNTZA PSIKOPEDAGOGIKOETARAKO DEIALDIA – 2016-2017 IKASTURTEA

UKO EGITEAREN JAKINARAZPENA

_____ jaun-andreak

_____ Ikastetxearen izenean,

IFZ: _____

JAKINARAZTEN DU:

_____ ikasleak,

_____ ikasturtean dagoenak, uko egiten diola Kultura, Hezkuntza eta Kirol Sailak (Hezkuntza Zerbitzua) 2016-17 ikasturterako egin duen Laguntza Psikopedagogikoen Deialdiaren esparruan emandako laguntzari.

Vitoria-Gasteizen, 2016ko _____-ren __-(e)an.

Izen-abizenak
(Sinadura eta jatorrizko zigiluak)

Ematen ari zaren datu pertsonalak "Diru-laguntzak" fitxategian sartuko direla jakinarazten dizu Gasteizko Udalak, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoa, abenduaren 13koa, betetze aldera. Fitxategi horren titularrak udala bera da, eta diru-laguntzak kudeatzea du helburu. Datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko, bertan behera uzteko edo datuei aurka egiteko eskubidea egikari dezakezu; horretarako, Vitoria-Gasteizko Udalaren Informazio Orokorreko Bulegora jo behar duzula, ondoko helbidera, hain zuzen: Teodoro Dublang kalea, 25. zenbakia, behea, 01008 Vitoria-Gasteiz, baita Herritarrentzako Arreta Bulego guztietara ere.